

1985-XII-20

Donostiako Diputazio Jauregian 1985.eko abenduaren 20an, arratsaldeko 4etan, egin du Euskaltzaindiak urteko bere azken batzarrea. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Charritton, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. X. Aranburu, M. Atxaga, P. Arregi, R. Badiola, I. Barriola, J. Estornes, J. Etxaide, J. M. Etxebarria, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, L. M. Mujika, J. Oleaga, R. de Rijk, J. I. Telletxea, I. Urquijo, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M.^a Satrustegi idazkari dela.

Ezin etorria adierazi dute, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, P. Larzabal eta K. Mitxelena jaunek. Goizean P. Altuna egon da, eta A. Irigoyen Peñafloredaren omenezko ekintzetara agertu da arratsaldean.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

A. Tovar ohorezko euskaltzainaren hil-berria eman du Euskaltzainburuak aipamen berezia beste batzarre batetarako utzirik.

Goizeko bilkuraren berri

Akademia Galegako idazkaria den Marino Donega jaunari idatzitako gutunaren berri eman du J. M. Satrustegik. Udazkenean egiteko zen Akademien arteko bilkura Urtarrilaren bigarren astera atzeratzea eskatzen zitzaien. J. San Martin Jagon Sailburuak katalandarren berriak eman ditu. Itxuraz, galegoekilako bilera gerorako uztearen alde agertzen dira. Euskaltzaindiaren ordezkari izateko izen batzu aipatu dira, baina ez da izendapenik egin.

Laster sortzekoa den Euskal Kulturaren Kontseilu Orokorreko erabakigaija jaso du Euskaltzaindiak, bertan ordezkari bat izango duela adierazten.

Nafarroan egin berri diren azterketen informazioa eman du J. J. Zearretak, A. Irigoyenekin batera izenpeturiko txostenean. Esaminei buruz orain arte zegoen batzorde suntsikorra aurrerantzean desagertzea erabaki du batzarreak. Euskaltzaindikoko langileek bulego-orduetan ez dute aurrerantzean esaminen ardurarik

hartuko. Euskaltzainek beren kontuz erantzun diezaiekete eskariei. Euskaltzain-diari zuzendutako galderak batzarrera ekarriko dira.

Gipuzkoako Farmazilarien lehendakariak gutun baten bidez egindako eskarian, Elkargo honen izen euskalduna nola esan behar den galdetzen du. Hamar urtez, noski, "Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte" erabili izan dute. Aurreko beste eskari batean, bestalde, "Gipuzkoako Farmazilarien Elkarte" ere aipu zuten beren arteko beste aukera bat bezala. Ez du batzarreak erantzun zehatzik eman, eta biak balia daitezkeela esango zaie.

"Symbolae L. Mitxelena" lan bilduma dela bide egindako omenaldiagatik gure Iker Sailburuari zorionak ematea erabaki da.

Intzako Damaso euskaltzainak bete berri ditu apaiztu zeneko 75 urte, eta zorion gutun bat bidaliko zaio.

I. Eizmendi "Baserriri" omenaldia egiten zaio egun hauetan eta, era berean, Euskaltzaindiaren agurra eta zorionak emango zaizkio.

Batzordeen berri

Atlasgintzako batzordea bakarrik bildu da gaur. Gai nagusia, herriz-herri galdekizunak egiteko langile berrien hautapena. Epai mahaikoen esku dago arazoa eta berek emango dute erabakiaren berri. P. Charrittonen eritziz, lanpostu hauen egunkarietako iragarpena ez da behar bezala egin Ipar aldean. *Herria* Kazetan bederen ezarri behar omen zen. Horretarako gai diren pertsonak ez omen dute berria jakin.

Txostenak

Miren Azkarate andereak "Euskal konposizioaren inguruan" izenburuarekin ekarritako txostena irakurri du. Euskaltzaindiaren eskariz, hitz elkartuen arloan lanean hasteko ikuspegi mugatu batzu aurkeztu ditu. Osagaiak elkartzean gertatzen diren zenbait aldaketa morfologiko aipatu ondoren, hitz elkartuen idazkerari begira 1971ko arauak berrikusi beharko direla, aditzera eman du.

Elkarrizketan esan da, esaera trakets eta mordoiloakeriak biltzen joatea izango litzatekeela aurrean oso baliagarria.

J. L. Lizundiak 1986eko batzarreen egutegia aurkeztu du, bere aldetik. Hilero-ko batzarretara gai asko ekartzen dugunez, denbora gehiagorekin, eskuartekoak kendu eta akademi azterketari dagokion astia lortzea, eskatu du. Bezperatik biltzeak dituen eragozpenak ikusirik, batzar egunean goizeko bederatzietan-edo lanean hastea erabaki da. Jardunaldi bi izango ditugu urtean zehar: Gasteizen 'Toki-izenen I Jardunaldiak', martxoaren erdi aldera; eta ebakerari buruzko Jardunaldiak, Durangoko Euskal Jaien mendeurrenkari, maiatz aldean.

Batzarre berezien arloan, uztailean izango da P. Charritton euskaltzain berriaren sarrera Hazparnen; irailean, Etxahunen II. mendeurrena Barkoxen; eta azaro-

rako ikusten da, Intza, Oieregi eta Donostia euskaltzain kaputxinoen ehunurteburuaren ospakizuna.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

Peñafloridaren goratarrea

Arratsaldeko Setan, Euskaltzaindiak batzarrea egin duen toki berean ospatu da Peñaflorida Kondearen II.mendeurrena. X. Aizarna eta I. Barriola eseri dira, euskaltzainburu, buruorde eta idazkariarekin batera mahai nagusian.

L. Villasante jaunak ospakizun honen atzeramendua zergatik den esan ondo-rean, Peñafloridak hizkuntzarekin duen lotura aipatu du. Berak sortutako elkar-teak kultur tresna bihurtu zuen gure hizkuntza, biziko baten. Gizon ospetsuen lana babestu eta bultzatu zuen. Azkenaldi honetan, Villasante bera, Haritsche-lhar eta Lafitte lagunkide hartu dituzte Elkartean. Hitz batean esateko, hark ereindako haziak frutua ematen jarraitzen du.

I. Barriola, Euskal Herriko Adiskideen Gipuzkoako burua mintzatu da gero, Peñafloridaren zenbait asmo azalduz. Hiru probintzien arteko lotura, Europako ikasketa berria, zientziaren munduko lorpenak izan ziren, besteak beste, emaitza baliagarriak. Lana ez zela inor lotsatzeko gauza eta herriko lanbidetarako bultzatu zituen, alferkeria arbuiauz. Euskarari dagokionez, parrokiako koruan egindako lana aipatu du, eta Bergarako ikaskintzan euskara erdararekin batera ematen zela.

J. Juaristi jaunak, “*El borracho burlado*” transizioko komedia bat gaitzat harturik, azken barrokoaren pobrezia jakintza mailan, aipatu du. Erreforma Borbonekin etorri zenez, Jovellanos eta Peñafloridaren idazlanek formaren aldetik ez dutela hainbesteko diferentziarik, esan du, edukina edo barneko mamian besterik ikusten bada ere. Kosmologikoari lotzen omen zaio, egilearen izaera isladatuz.

“Gabon sariak” gogoratu ditu J. San Martin jaunak bere txostenean. Sor Luisaren izenordeak lanik aski eman bazuen ere egilea ezagutzeko, gaur ez dago dudarik Peñafloridaren lana esatean dela. Gabon kantak baino maila goragokoak dira. Jakintsu baten lana. Martinbeltz aipatzen da laguntzaile bezala. Zer misterio dagoen aipamen horretan galdetzen du txostengileak. Ideia berrien mezulari izan zen omendua.

X. Altzibar luze mintzatu da “Peñaflorida, Mogel, Ilustrazioa eta Prerromantizismoaz”, bakoitzaren ezaugarri nagusiak emanez.

J. A. Aranak bidalitako txostena, “Peñaflorida Condearen genealogia Juan Carlos Guerrarengan”, aipatu du euskaltzainburuak.

J. M. Lopez de Juan Abad, Euskal Herriko Adiskideen Erret Elkartearen buruak bidalitako telegrama irakurri du gero idazkariak.

Amaitzeko, I. Barriolak eskerrak eman dizkie batzartuei eta besterik gabe bukatu da ospakizuna.

Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua

Jose M.^a Satrustegi,
Idazkaria